

GRADUEN MAPA  
UPV/EHU

---

GENERO IKUSPEGIAREN TXERTAKETA  
GRADUETAN

## AURKIBIDEA

---

SARRERA .....	3
A. GENERO IKUSPEGIA UPV/EHUn TXERTATZEA. IKUSPEGI OROKORRA .....	6
A.1. Jakintza adarrak .....	8
A.2. Graduak .....	9
A.3. Irakasgaiak .....	12
A.3.1. Irakasgaietan, genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso duten arloak .....	14
A.3.2. Irakasgai motak eta kredituak.....	16
A.3.3. Sailak.....	19
A.3.4. Irakasleak.....	21
A.4. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista, graduen aurkezpenean .....	22
A.5. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren analisia, genero ikuspegia nolabait txertatua duten graduetan .....	26
B. INFORMAZIO OROKORRAREN BANAKATZEA, CAMPUS ETA IKASTEGIEN ARABERA ETA JAKINTZA ADARREN ARABERA .....	28
B.1. Informazio orokorra, campus eta ikastegiaren arabera.....	28
B.2. Jakintza adarren arabera.....	29
C. INFORMAZIOAREN BANAKATZEA, CAMPUSEN ARABERA .....	31
C.1. Arabako campusa .....	31
C.1.1. Genero ikuspegia txertatzearen (GIT) eragina jaso duten ikastegiak eta graduak.....	31
C.1.2. Genero ikuspegiaren txertaketaren eragina jaso duten irakasgaiak , mailaz maila ....	33
C.1.3. Genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso duten irakasgaien zehaztasunak, gradu eta ikastegiaren arabera.....	35
C.2. Bizkaiko campusa .....	43
C.2.1. Genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso duten ikastegiak eta graduak. ....	43
C.2.2. Genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso duten irakasgaiak, mailaz maila .....	46
C.2.3. Genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso duten irakasgaien zehaztasunak, gradu eta ikastegiaren arabera .....	49
C.3. Gipuzkoako campusa .....	60
C.3.1. Genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso duten ikastegiak eta graduak .....	60
C.3.2. Genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso duten irakasgaiak, mailaz maila.....	61
C.3.3. Genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso duten irakasgaien zehaztasunak, gradu eta ikastegiaren arabera.....	63
ERANSKINAK .....	69
I. ERANSKINA. Informazioa biltzeko erabilitako fitxak	
II. ERANSKINA. Graduen lehen mailako diagnostikoan parte hartu zuten UPV/EHUko irakasleen zerrenda	

## SARRERA

Graduen mapa honen helburua UPV/EHUko graduen irakaskuntzan genero ikuspegia zenbateraino txertatuta dagoen jakitea da. Horrela, *UPV/EHUko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako I. Planak (2010-2013)* **agindutakoa beteko dugu; izan ere, planaren "Genero ikuspegiaren txertaketa irakaskuntzan" ardatzean, graduen mapa bat egitea aurreikusten zen**, non gaitasunak eta edukiak generoaren ikuspegitik aztertuko ziren. Ekintza honen bidez, ezagutzaren transmisioan genero ikuspegia txertatzeko helburua bete nahi da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondorioetarako, **genero ikuspegia txertatzea honela ulertzen da: "emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea."**

Unibertsitateko irakaskuntzan genero ikuspegia txertatzeko, irakaskuntzaren alderdi guztien azterketa sakona egin behar da, egon daitezkeen genero alboratzeak hautemateko eta ezabatzeko (Mora eta Pujal 2009<sup>1</sup>). Horretarako, irakaskuntza osatzen duten elementu guztiak generoaren ikuspegitik aztertu beharko lirateke. Aztertu beharko genituzke, beraz, irakasgaien edukiak eta haien garapena, erabilitako adibide motak, emandako praktikak eta mintegiak, erabilitako hizkuntza eta iturriak, ikasleekin harremanetan jartzeko modua, etab.

Aurkezten dugun mapa hau, ordea, ez da hain handinahia. UPV/EHUko **"genero sentsibilitatearen" lehen argazki bat lortu nahi da, eskainitako graduak kontuan hartuta, eta horretarako graduei buruzko informazio orokorra eta ikasketa planak hartu dira oinarritzat.**

Informazioa jasotzeko lehen fasean, 2010/2011 ikasturteko apiril-maiatza bitartean, hainbat ikastegik eta pertsonak<sup>2</sup> parte hartu zuten diagnostikoan, eta haien lana eta dedikazioa eskertu nahi ditugu. Dena den, lehen analisi hartan UPV/EHUko ikastegi guztiek parte hartu ezin izan zuten eta datuak baloratzeko unean irizpideak bat ez zetozen, kanpoko enpresa bat hartzea erabaki zen, lau mailetako analisisa batera egiteko.

### Helburua

Dokumentu honetan jasotako graduen azterketa honen bidez zera jakin nahi dugu: genero ikuspegia zenbateraino eta nola dagoen txertatuta, bai graduei buruzko informazio orokorrean bai haien ikasketa planetan.

**Lan honetan, UPV/EHUko graduetan dagoen "genero sentsibilitatea" ezagutzeko, adierazpen hau erabiliko dugu: *genero ikuspegia txertatzearen eragina (GIT eragina)*. Azterketa honetarako, beraz, graduei buruzko informazio orokorrean eta ikasketa planetan GIT eragina jaso dela ulertuko da "genero sentsibilitatea" nolabait islatzen den aldiro.**

Horretarako, hainbat gako hitz identifikatu dira (berdintasun/desberdintasun, ekitate/ez-ekitate, emakumeak, generoa, feminismoa, baterako hezkuntza, patriarkatua, androzentrismoa, emakumeen aurkako indarkeria, bazterkeria), eta termino horiek eduki hauetan bilatu dira:

- Graduen aurkezpenean, deskripzioan eta gaitasunetan.
- Ikasketa planen edukietan. Zehazki, irakasgaien izenburuak eta **"gaitasunak/deskripzioa/helburuak" eta "gaiak" atalak aztertu ziren, irakasgaietako irakaskuntza gidetan.**

Irakasgaien irakaskuntza gidetan, beste bi alderdi ere aztertu dira:

- Irakasleen identifikazioa, sexuaren arabera.

<sup>1</sup> Enrico Mora eta Margot Pujal (2009): "Introducción de la perspectiva de género en la docencia universitaria", *Univest*, Girona.

<sup>2</sup> Ikastegi eta pertsonen zerrenda II. eranskinean ageri da.

- Bibliografiaren azterketa, emakumezko eta gizonezko egileak bereizten diren eta GIT eragina duten erreferentziak dauden jakiteko.

Horrez gain, graduei buruzko informazio orokorrean (aurkezpena, deskripzioa eta gaitasunak) hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten ote den aztertu da.

Informazioa biltzeko tresnak

UPV/EHUko graduen eskaintza aztertzeko, unibertsitateko webgunean eskuragarri dagoen informazioa hartu da oinarritzat ([www.ehu.es](http://www.ehu.es)). Zehazki, gradu bakoitzaren lau maileri buruz gaztelaniaz dagoen informazioa aztertu da.

Informazioaren bilketa eta lau mailen analisia garai desberdinetan egin ziren:

- Lehenengo maila: 2011ko irail-urria bitartean.
- Bigarren maila: 2012ko martxo-maiatza bitartean.
- Hirugarren maila: 2012ko irail-azaro bitartean
- Laugarren maila: 2013ko irail-urria bitartean.

Halere, dokumentu hau amaitu aurretik hiru datu mota eguneratu dira, gaur egungo egoeraren gaineko irudi errealago bat islatze aldera. Hauek dira:

1. Emakume eta gizonen kopurua, GIT eragina duten irakasgaietako irakasleen artean.
2. Hizkuntza ez-sexistaren erabilera, graduen aurkezpenean (Aurkezpena, Helburuak, Gaitasunak eta Gradudunaren profila).
3. Aukera berdintasunari eta genero ikuspegiari lotutako gako hitzen agerpenak graduak aurkezteko testuetan (Aurkezpena, Helburuak, Gaitasunak eta Gradudunaren profila).

Azterketa egiteko, hiru fitxa<sup>3</sup> mota erabili dira, UPV/EHUko Berdintasunerako Batzordeak diseinatutakoak. Fitxa horietan, analisirako hainbat item eta irizpide biltzen dira:

- Graduaren fitxa orokorra: horren bidez, gradu bakoitza aurkezteko testuetan (Helburuak, Gaitasunak eta Gradudunaren profila) GIT eragina aztertu da; batetik, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten den ala ez jakiteko; eta bestetik, GIT eraginik baden jakiteko, graduaren helburuetan eta/edo gaitasunetan eta gradudunaren profilean genero ikuspegiari eta aukera berdintasunari lotutako gako hitzak aztertuta.
- Irakasgaiaren fitxa: lau mailletako<sup>4</sup> irakasgaiak aztertzea ahalbidetu du, item hauek oinarri hartuta:
  - Irakasgaiaren izena
  - Kreditu kopurua
  - Irakasgai mota
  - Sail arduraduna
  - Irakasleak: emakumezko eta gizonezko irakasleen kopurua
  - GIT eragina duten gaitasunak/helburuak
  - GIT eragina duten gaiak
  - Bibliografian, egilearen izena osorik jartzen duten aipuen erabilera, gizonezko eta emakumezko egileak bereizteko
  - GIT eragina duten erreferentzien erabilera, bibliografian

<sup>3</sup> Fitxen ereduak I. eranskinean jasota daude.

<sup>4</sup> Ematen ari ziren irakasgaiak aztertu dira, azterketa aldi bakoitzean.

- Mailako laburpen fitxa: irakasgai bakoitzaren fitxan jasotako datuetatik abiatuta, maila bakoitzari buruzko informazioa jaso da laburpen fitxa batean, non datu nagusiak laburbiltzen diren, hau da: izenean, gaitasunetan, gaietan eta bibliografian GIT eragina duten irakasgaien kopurua.


#### Datuen aurkezpena

Txosten honek gradu guztien laburpen fitxetatik hartutako informazioa jaso, eta hiru ataletan biltzen du:

1. A atala: datuen laburpen orokor bat da, taulak eta grafikoak dituena, non graduetako GIT eragina eta graduak aurkezteko testuetako hizkuntzaren erabilera ez-sexista islatzen diren.
2. B atala: GIT eragina duten graduei eta ikastegiei buruzko informazio xehea ematen du. Informazioa campusen eta ezagutza adarren arabera dago antolatuta.
3. C atala: informazio xehea ematen du GIT eragina duten irakasgaiei dagozkien graduei eta ikastegiei buruz, campus bakoitzeko.


## A. GENERO IKUSPEGIA UPV/EHU<sup>n</sup> TXERTATZEA. IKUSPEGI OROKORRA

UPV/EHUko ikastegietan genero ikuspegia txertatzeari (GIT) buruzko ikuspegi orokorrak erakusten duenez, ikastegien<sup>5</sup> % 68,75etan graduak daude, non genero ikuspegia txertatzearen eragina hauteman daitekeen, bai graduaren helburu edo gaitasunetan, bai irakasgaietako edukietan.



1. grafikoa. Ikastegiak, GIT graduak edukitzearen arabera

Datuak campusaren arabera aztertuta, ikus daiteke genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso duten ikastegien proportzioa parekoa dela Arabako eta Bizkaiko campusetan; izan ere, Araban, 7 ikastegietatik 5etan –% 71,43– genero ikuspegia txertatzen duten graduak daude, eta Bizkaian, 14 ikastegietatik, horrelako graduak ematen dira 10 ikastegitan –% 71,43–. Gipuzkoan, berriz, 11 ikastegietatik, GIT eragina duten graduak 7 ikastegitan daude; hau da: % 63,64.



2. grafikoa: GIT graduak dituzten ikastegiak, campusaren arabera

<sup>5</sup> Ez dira aztertu Esperientzien Gelak, ez dutelako graduak irakaskuntzarik ematen, ezta Gasteiz, Donostia, Basurto eta Gurutzetako Medikuntza eta Odontologiako irakasguneak ere, Medikuntzako Graduaren irakaskuntza ematen dutelako.


Hurrengo taulan, campus bakoitzean, GIT eragina duten graduak ematen dituzten ikastegien zerrenda ageri da.

Campusa	GIT eragina duten ikastegien zerrenda
Araba	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gasteizko Irakasleen Eskola UE</li> <li>• Gasteizko Gizarte Langintzako UE</li> <li>• Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F</li> <li>• Farmazia F</li> <li>• Letren F</li> </ul>
Bizkaia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nautika eta Itsasontzi-makineriako GET</li> <li>• Leioako Erizaintzako UE</li> <li>• Bilboko Irakasleen UE</li> <li>• Lan Harremanen UE</li> <li>• Arte Ederren F.</li> <li>• Zientzia eta Teknologia F</li> <li>• Ekonomia eta Enpresa Zientzien F</li> <li>• Gizarte eta Komunikazio Zientzien F</li> <li>• Zuzenbide F, Bizkaiko atala</li> <li>• Medikuntza eta Odontologia F</li> </ul>
Gipuzkoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Donostiako Erizaintzaren UE</li> <li>• Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE</li> <li>• Donostiako Irakasleen UE</li> <li>• Kimika Zientzien F</li> <li>• Zuzenbide F</li> <li>• Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F</li> <li>• Psikologia F</li> </ul>

1. taula. Ikuspegi orokorra, campusen eta ikastegien arabera

## A.1. JAKINTZA ADARRAK

Jakintza adarrak aintzat hartuta, Artea eta Giza Zientzietan biltzen da GIT eragina duten graduen proportziorik handiena. Segidan, nahiko gertu, Gizarte eta Lege Zientziak daude; hirugarren lekuan, Osasun Zientziak; gero, Zientziak; eta, azkenik, Ingeniaritza eta Arkitektura.



3. grafikoa: GIT eragina duten graduak, jakintza adarraren arabera


Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, kopuruak eta ehunekoak honako hauek dira:

- Artea eta Giza Zientziak: graduen % 90ek –10 graduetatik 9– genero ikuspegia nolabait txertatua dute.
- Gizarte eta Lege Zientziak: graduen % 83,87k –31 graduetatik 26– genero ikuspegia nolabait txertatua dute.
- Osasun Zientziak: graduen % 75ek –8 graduetatik 6– genero ikuspegia nolabait txertatua dute.
- Zientziak: graduen % 50ek -10 graduetatik 5– genero ikuspegia nolabait txertatua dute.
- Ingeniaritza eta Arkitektura: graduen % 6,25ek –32 graduetatik 2– genero ikuspegia nolabait txertatua dute.



## A.2. GRADUAK

Graduen arabera datuei dagokienez, aztertutako 91 graduen<sup>6</sup> artetik, erdiek baino apur bat gehiagok, hots, % 52,75ek (48) genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso dute.




4. grafikoa. GIT eragina duten graduak

Campusaren arabera, zenbatekoak hauek dira:

	Campusa		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Graduak	22	46	23
GIT graduak	13	23	12
GIT graduen %, campusaren arabera	% 59,09	% 50	% 52,17

2. taula. Graduak eta GIT graduak, campusaren arabera

Hurrengo grafikoa, gradu guztien eta GIT graduen arteko erlazioa ikus daiteke, campusaren arabera.



5. grafikoa. GIT graduen kopurua, campusaren arabera

<sup>6</sup> Graduak kopuru osoa 70 bada ere, gradu batzuk hiru campusetan errepikatzen direnez, azterketa honetan webgunean ([www.ehu.es](http://www.ehu.es)) dauden 91 graduetatik eskuragarri zegoen informazioa aztertu da.

Datu hauei buruzko informazio xehea kontsulta daiteke taula hauetan:

Arabako Campusean, graduen % 59,09ek -22tik 13– genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso dute.

Arabako Campusa		
Graduak guztira	GIT graduak guztira	GIT graduen zerrenda
22	13	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ingurumen Zientziak</li> <li>2.</li> <li>3. Haur Hezkuntza</li> <li>4. Lehen Hezkuntza</li> <li>5. Ingeles Ikasketak</li> <li>6. Euskal Ikasketak</li> <li>7. Filologia</li> <li>8. Geografia eta Lurralde Antolakuntza</li> <li>9. Historia</li> <li>10. Artearen Historia</li> <li>11. Giza Elikadura eta Dietetika</li> <li>12. Gizarte Lana</li> <li>13. Itzulpengintza eta Interpretazioa</li> </ol>

3. taula. GIT graduak, Araban

Arabako Campusean, graduen % 50ek -46tik 23– genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso dute.

Arabako Campusa		
Graduak guztira	GIT graduak guztira	GIT graduen zerrenda
46	23	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza</li> <li>2. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza, eta Zuzenbideko Gradua</li> <li>3. Arteak</li> <li>4. Biokimika eta Biologia Molekularra</li> <li>5. Bioteknologia</li> <li>6. Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa</li> <li>7. Ikus-entzunezko Komunikazioa</li> <li>8. Sorkuntza eta Diseinua</li> <li>9. Zuzenbidea</li> <li>10. Ekonomia</li> <li>11. Haur Hezkuntza</li> <li>12. Lehen Hezkuntza</li> <li>13. Gizarte Hezkuntza</li> <li>14. Erizaintza</li> <li>15. Zerga Sistema</li> <li>16. Itsas Ingeniaritza</li> <li>17. Medikuntza</li> <li>18. Odontologia</li> <li>19. Kazetaritza</li> <li>20. Publizitatea eta Harreman Publikoak</li> <li>21. Kimika</li> <li>22. Lan Harremanak</li> <li>23. Soziologia</li> </ol>

4. taula. GIT graduak Bizkaian


Gipuzkoako Campusean, graduen % 25,17k –23tik 12– genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso dute.

Gipuzkoako Campusa		
Graduak guztira	GIT graduak guztira	GIT graduen zerrenda
23	12	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gizarte Antropologia</li> <li>2. Kriminologia</li> <li>3. Zuzenbidea</li> <li>4. Haur Hezkuntza</li> <li>5. Lehen Hezkuntza</li> <li>6. Gizarte Hezkuntza</li> <li>7. Erizaintza</li> <li>8. Filosofia</li> <li>9. Energia Berriztagarrien Ingeniaritza</li> <li>10. Pedagogia</li> <li>11. Psikologia</li> <li>12. Kimika</li> </ol>

5. taula. GIT graduak, Gipuzkoan

### A.3. IRAKASGAIK

UPV/EHUn eskainitako graduetan 4.299 irakasgai ematen dira, guztira. Horien artetik, 169k genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso dute. Hortaz, 4 mailak eta 91 graduak kontuan hartuta, irakasgai osoen % 3,93 dira.




6 grafikoa. GIT eragina duten irakasgaiak, osoarekiko

Datuek islatzen dutenez, GIT eragina duten irakasgaien proportzioa osoarekiko ez da gehiegi aldatzen campus batetik bestera.

CAMPUSA	Irakasgai kop.	GIT irakasgai kop.	GIT irakasgaien %
Araba	1391	55	% 3,95
Bizkaia	1986	73	% 3,68
Gipuzkoa	922	41	% 4,45
GUZTIRA	4299	169	% 3,93

6. taula. GIT irakasgaiak, campusaren arabera




7. grafikoa. GIT eragina duten irakasgaien ehunekoa, campusaren arabera

Datuek, mailaz maila, GIT eragina duten irakasgaien proportzio handiagoa islatzen dute lehenengo mailan.

	Maila			
	1.	2.	3.	4.
Irakasgai kopuru osoa	838	899	1016	1546
GIT irakasgai kop.	60	39	34	36
GIT irakasgaien %	% 7,16	% 4,34	% 3,35	% 2,33

7. taula. GIT eragina duten irakasgaien proportzioa irakasgai guztiekiko, mailaz maila



8. grafikoa. GIT irakasgaien ehunekoa osoarekiko, mailaz maila.

7. eta 8. tauletan ikus daitekeen moduan, GIT eragina duten 169 irakasgaiak maila guztietan daude banatuta, 1., 2., 3. eta 4. mailatan ematen baitira. Lehenengo mailan daude GIT irakasgai gehien, % 35,50ekin (60); haren ondoren, bigarren maila dago, % 23,08rekin (39); gero, hirugarrena maila, % 20,12rekin (34), eta, azkenik, laugarrena, % 21,30ekin (36).

	Maila			
	1.	2.	3.	4.
GIT irakasgai kop.	60	39	34	36
GIT irakasgaien %	% 35,50	% 23,08	% 20,12	% 21,30

8. taula. GIT eragina duten irakasgaien proportzioa irakasgai guztiekiko, mailaz maila.

Campus eta mailaren arabera, GIT irakasgaien kopurua honako hau da:

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
1. maila	14	25	21	60
2. maila	15	13	11	39
3. maila	16	14	4	34
4. maila	15	21	5	36
Osoa, campusaren arabera	55	73	41	169

9. taula. GIT irakasgaiak, campus eta mailaren arabera


### A.3.1. Irakasgietan, genero ikuspegia txertatzearen eragina jaso duten arloak

Genero ikuspegia txertatzearen (GIT) eragina hainbat modutan islatzen da irakasgietan: izenburuan ager daiteke, haren gaitasunen deskripzioan, gaien edukietan eta/edo erreferentzia bibliografikoetan.

Kasurik gehienetan, genero ikuspegia txertatzearen eragina analisi honetan erabilitako arloetako (izenburua, gaitasuna, gaiak eta bibliografia) batean bakarrik agertzen da, nahiz eta arlo batean baino gehiagotan GIT eragina duten irakasgaiak ere badiren.

	GIT irakasgai kop.	%
GIT eragina arlo batean	101	% 59,77
GIT eragina bi arlotan	44	% 26,05
GIT eragina hiru arlotan	15	% 8,88
GIT eragina arlo guztietan	9	% 5,34
Guztira	169	% 100

10 taula. Irakasgai bakarrean bat datozen GIT arloen kopurua




9. grafikoa. Irakasgaien ehunekoa, GIT eragina duten arlo kopuruaren arabera

169 GIT irakasgaietan<sup>7</sup>, genero ikuspegia nolabait txertatua duen arlo bakoitzaren eraginaren ehunekoak honako hauek dira:

- Irakasgaien % 7,69ek (13), izenburuan.
- % 40,83k (69), gaitasunetan.
- % 76,92k (130), gaietan.
- % 34,32k (58), bibliografian.

<sup>7</sup> Esan behar da irakasgai batzuk campus desberdinetan emandako gradu berari dagozkiola, eta, lehen adierazi bezala, gogoratu behar dugu irakasgai berak GIE eragina hainbat arlotan izan dezakeela (izenburua, gaitasuna, gaiak eta/edo bibliografia).

Arlo guztiak kontuan hartuta, GIT eragina gaitan agertzen da gehien; eta, ondoren, gaitasunetan eta bibliografiatan, hurrenez hurren. Azkenik, izenburuetan gutxi batzuetan baino ez da agertzen.



10. grafikoa. GIT eragina, GIT irakasgaien arloetan

Bibliografiaren arloan, arretaz zaindu beharreko datuak biltzen dira. Hiru campusetan GIT eragina duten irakasgai guztien artetik (169), 58 irakasgaien bibliografia erreferentzietan genero ikuspegia txertatzen da. Hortaz, osoaren % 34,32 dira.


	Kopurua
Irakasgai kopuru osoa	169
GIT bibliografia erreferentziak dituzten irakasgaiak	58
Ehuneko osoarekiko	% 34,32

11. taula. GIT bibliografia erreferentziak dituzten GIT irakasgaiak

Bibliografia erreferentziak aipatzeko moduari dagokionez, egilearen izenaren inisiala jartzen da gehienetan, eta horrek zenbat gizon eta zenbat emakume dauden jakitea eragozten du. GIT eragina duten 169 irakasgaiei erreparatuz gero, joera bera nagusi bada ere (soilik inzialak erabiltzen dira irakasgaien % 64,50ean), irakasgaien ehuneko esanguratsu batean –% 19,53– osorik ematen dira egileen izenak. Irakasgaien % 8,25an, berriz, aipuak modu mistoan ematen dira; hau da, batzuetan inzialak erabiltzen dira, eta beste batzuetan, izena osorik. Bestalde, irakasgaien % 7,69ek ez du informaziorik ematen bibliografiari buruz.


	Bibliografia erreferentziak aipatzeko moduak				
	Inzialak	Izen osoa	Mistoa (inzialak/izena)	Aipurik ez	Guztira
Irakasgai kop.	109	33	14	13	169
Ehuneko osoarekiko	% 64,50	% 19,53	% 8,28	% 7,69	% 100

12. taula. GIT eragina duten bibliografia erreferentzien aipuak



11. grafikoa. Bibliografia erreferentziak aipatzeko moduak, GIT eragina duten irakasgaitan

Bibliografian egilearen izena osorik ematen duten 33 irakasgaiei erreparatuz gero, desoreka bat hautematen da gizonezko (% 72,64) eta emakumezko (% 27,36) egileen artean.



12. grafikoa. Emakumezko eta gizonezko egileen ehunekoa bibliografia erreferentzietan, GIT eragina duten irakasgaitan


### A.3.2. Irakasgai motak eta kredituak

GIT eragina duten irakasgai motei dagokienez, nahitaezkoak dira nagusi, eta horien atzetik daude, hurrenez hurren, adarreko oinarrizkoak, hautazkoak eta beste adar batzuetako oinarrizkoak.

GIT irakasgai mota	Irakasgai kop.	GIT irakasgaien osoarekiko %
Nahitaezkoak	59	% 34,91
Hautazkoak	48	% 28,40
Adarreko oinarrizkoak	48	% 28,40
Beste adar batzuetako oinarrizkoak	14	% 8,28
Guztira	169	% 100

13. taula. GIT eragina duten irakasgai motak






13. Grafikoa. GIT eragina duten irakasgaiak, irakasgai motaren arabera

Campusaren arabera, datuak honako hauek dira:


Irakasgai mota	Campusa		
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Nahitaezkoa	20	22	17
Hautazkoa	15	26	7
Adarreko oinarrikoa	18	21	9
Beste adar batzuetako oinarrikoa	2	4	8

14. taula. GIT eragina duten irakasgai motak, campusaren arabera



14. grafikoa. GIT eragina duten irakasgai motak, campusaren arabera

Kredituei dagokienez, GIT eragina jaso duten irakasgaiak, guztira, 1.039 kreditu batzen dituzte, graduetako irakasgai guztiek batzen dituzten 21.312 kredituen artetik. Beraz, kreditu guztien % 4,88 dira.




15. grafikoa. GIT eragina duten irakasgaien kredituak

Irakasgai motaren arabera, kredituak honela banatzen dira:

	Irakasgai motak				
	Adarreko oinarrizkoak	Beste adar batzuetako oinarrizkoak	Nahitaezkoak	Hautazkoak	Guztira
Irakasgai guztien kredituak	5.058	607,5	12.436,5	3.210	21.312
GIT irakasgaien kredituak	294	84	382	279	1.039
GIT kredituen ehunekoa, osoarekiko	% 5,81	% 13,83	% 3,07	% 8,69	% 4,88


15. taula. GIT irakasgaien kredituak, kreditu guztiekiko, irakasgai motaren arabera



16. grafikoa. GIT eragina duten irakasgaien kredituak, kreditu guztiekiko, irakasgai motaren arabera

### A.3.3. Sailak

GIT eragina jaso duten irakasgaiak eskaintzen dituzten sailak, berriz, 42 dira, 111 sailen artetik; hots, UPV/EHUko sail guztien % 37,83.



17. grafikoa. GIT eragina duten graduak dituzten sailak

Jarraian, GIT eragina duten irakasgaiak eskaintzen dituzten sailak zerrendatzen ditugu:

GIT irakasgaiak dituzten sailak	GIT eragina jaso duten irakasgaiak dituzten sailen zerrenda
<p style="text-align: center;">42</p> <p>(% 37,83, sail guztiekiko)</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Politika eta Administrazio Zientziak</li> <li>2. Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea</li> <li>3. Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia</li> <li>4. Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia</li> <li>5. Zuzenbide zibila</li> <li>6. Konstituzio Zuzenbidea eta Pentsamenduaren Historia</li> <li>7. Enpresa Zuzenbidea</li> <li>8. Estatuaren Eliza Zuzenbidea eta Erromatar Zuzenbidea</li> <li>9. Zuzenbide Publikoa</li> <li>10. Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpidearen Didaktika</li> <li>11. Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika</li> <li>12. Matematikaren eta Zientzia Esperimentalen Didaktika</li> <li>13. Gizarte Zientzien Didaktika</li> <li>14. Didaktika eta Eskola Antolakuntza</li> <li>15. Ekonomia Aplikatua I</li> <li>16. Ekonomia Aplikatua II</li> <li>17. Finantza Ekonomia II</li> <li>18. Gorputz eta Kirol Hezkuntza</li> <li>19. Erizaintza I</li> <li>20. Erizaintza II</li> <li>21. Ikasketa Klasikoak</li> <li>22. Hispaniar Filologia, Filologia Erromanikoa eta Literaturaren Teoria</li> <li>23. Ingeles eta Aleman Filologia</li> <li>24. Filosofia</li> <li>25. Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia</li> <li>26. Fisiologia</li> <li>27. Ekonomia Analisiaren Oinarriak I</li> <li>28. Analisi Ekonomikoaren Oinarriak II</li> <li>29. Historia Garaikidea</li> <li>30. Artearen eta Musikaren Historia</li> <li>31. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak</li> <li>32. Logika eta Zientziaren Filosofia</li> <li>33. Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak</li> <li>34. Kazetaritza II</li> <li>35. Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamendua</li> <li>36. Pintura</li> <li>37. Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta haien Garapena</li> <li>38. Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia</li> <li>39. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia</li> <li>40. Soziologia II</li> <li>41. Soziologia eta Gizarte Langintza</li> <li>42. Hezkuntzaren Teoria eta Historia</li> </ol>

16. taula. GIT eragina jaso duten irakasgaiak dituzten sailen zerrenda

Eta GIT eragina jaso duten irakasgaiak dagozkien sailak, campusaren arabera<sup>8</sup>:

Arabako Campusa	
GIT irakasgaiak dituzten sailak	Sailen zerrenda
20	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Politika eta Administrazio Zientziak</li> <li>2. Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia</li> <li>3. Zuzenbide Publikoa</li> <li>4. Matematikaren Didaktika eta Zientzia Esperimentalak</li> <li>5. Gizarte Zientzien Didaktika</li> <li>6. Didaktika eta Eskola Antolakuntza</li> <li>7. Ekonomia Aplikatua I</li> <li>8. Gorputz eta Kirol Hezkuntza</li> <li>9. Ikasketa Klasikoak</li> <li>10. Hispaniar Filologia, Filologia Erromanikoa eta Literaturaren Teoria</li> <li>11. Ingeles eta Aleman Filologia</li> <li>12. Filosofia</li> <li>13. Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia</li> <li>14. Garaiko Historia</li> <li>15. Artearen eta Musikaren Historia</li> <li>16. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak</li> <li>17. Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia</li> <li>18. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia</li> <li>19. Soziologia II</li> <li>20. Soziologia eta Gizarte Langintza</li> </ol>
Campus de Bizkaia	
GIT irakasgaiak dituzten sailak	Sailen zerrenda
27	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Politika eta Administrazio Zientzia</li> <li>2. Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea</li> <li>3. Zuzenbide Zibila</li> <li>4. Konstituzio Zuzenbidea eta Pentsamenduaren Historia</li> <li>5. Enpresa Zuzenbidea</li> <li>6. Estatuaren Eliza Zuzenbidea eta Erromatar Zuzenbidea</li> <li>7. Nazioarteko Zuzenbide Publikoa</li> <li>8. Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpidearen Didaktika</li> <li>9. Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika</li> <li>10. Matematikaren Didaktika eta Zientzia Esperimentalak</li> <li>11. Didaktika eta Eskola Antolakuntza</li> <li>12. Ekonomia Aplikatua I</li> <li>13. Ekonomia Aplikatua II</li> <li>14. Finantza Ekonomia II</li> <li>15. Erizaintza I</li> <li>16. Erizaintza II</li> <li>17. Fisiologia</li> <li>18. Ekonomia Analisiaren Oinarriak I</li> <li>19. Análisi Ekonomikoaren Oinarriak II</li> <li>20. Historia Garaikidea</li> <li>21. Artearen eta Musikaren Historia</li> <li>22. Kazetaritza II</li> <li>23. Pintura</li> <li>24. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia</li> <li>25. Soziologia II</li> <li>26. Soziologia eta Gizarte Langintza</li> <li>27. Hezkuntzaren Teoria eta Historia</li> </ol>


<sup>8</sup> {Sail batzuek hainbat campusetan ematen dute graduko irakaskuntza.

Gipuzkoako Campusa	
GIT irakasgaiak dituzten sailak	Sailen zerrenda
15	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia</li> <li>2. Zuzenbide Zibila</li> <li>3. Estatuaren Eliza Zuzenbidea eta Erromatar Zuzenbidea</li> <li>4. Zuzenbide Publikoa</li> <li>5. Matematikaren eta Zientzia Esperimentalen Didaktika</li> <li>6. Didaktika eta Eskola Antolakuntza</li> <li>7. Erizaintza II</li> <li>8. Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia</li> <li>9. Logika eta Zientziaren Filosofia</li> <li>10. Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak</li> <li>11. Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamendua</li> <li>12. Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta haien Garapena</li> <li>13. Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia</li> <li>14. Soziologia eta Gizarte Langintza</li> <li>15. Hezkuntzaren Teoria eta Historia</li> </ol>

17. taula. GIT eragina duten irakasgaiak dituzten sailen zerrenda, campusaren arabera

#### A.3.4. Irakasleak

GIT eragina duten irakasgaien irakasleei dagokienez, 2013-2014 ikasturteko datuek emakumeak nagusi direla erakusten digute; izan ere, 124 irakasle emakumeak dira eta 86, gizonak (emakumezko irakasleak % 59,05, eta gizonazkoak % 40,95). Haatik, kopuru horiek ez dira guztiz errealak, kasu batzuetan ez baita ematen irakasleei buruzko informaziorik. Hain zuzen, 16 irakasgaitan ez dugu datu hori ezagutzen, webgunean jasota ez dagoelako. Horrez gain, irakasleak alda daitezke ikasturte batetik bestera, erretiroak eta/edo egin beharreko ordezkapenak direla eta.



18. grafikoa. GIT eragina duten irakasgaietako emakumezko eta gizonazko irakasleen ehunekoa

#### A.4. HIZKUNTZAREN ERABILERA EZ-SEXISTA, GRADUEN AURKEZPENEAN

Gradu bakoitza aurkezteko testuak aztertu dira, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten den ala ez jakiteko eta maskulinoa zein femeninoa erabiltzen diren eta/edo termino epizenoez (bi sexuak hartzen dituzten terminoak, hala nola gaztelaniazko "profesorado" edo "alumnado") baliatzen diren aztertzeko. Eskuratutako informazioa lau kategoriatan egituratu da:

1. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista: maskulinoa generiko gisa erabiltzea saihesten duen hizkuntza da. Horretarako, agerian uzten dira bai maskulinoa bai femeninoa eta/edo bi sexuak hartzen dituzten termino epizenoez baliatzen da (hala nola, gaztelaniazko "profesorado", "alumnado", "ser humano").
2. Hizkuntzaren erabilera sexista: gizonei nahiz emakumeei buruz ari denean maskulinoa generiko gisa erabiltzen duen hizkuntza da; horrela, emakumeak ikusezin bihurtzen dira.
3. Hizkuntzaren erabilera aldakorra: hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten da testuan batera erabiltzen direnean termino epizenok/inklusiboak, genero maskulinoa eta femeninoa, eta maskulinoa bakarrik, generiko gisa. Horrek, batzuetan, gorabehera semantikoak eragiten ditu.
4. Ez dago azalpen testurik: kasu batzuetan, ez da graduen deskripzioari buruzko informazioa ematen; hortaz, ezin izan da balioespenik egin hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren inguruan.

Hizkuntzaren erabilera ez-sexista aztertzeko, atal hauek aztertu dira:

- ° Graduaren aurkezpena
- ° Graduaren helburuak
- ° Graduaren gaitasunak
- ° Gradudunaren profila

Datuen lehen begiratuan, ikus daiteke hizkuntzaren erabilera ez-sexistari dagokionez gradu berak ez diola beti ildo berari jarraitzen atal guztietan. Joera nagusia ezagutzeko, datuak lau taldetan elkartu dira, lau suposizioetan oinarrituta:

1. Atal guztietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten duten graduak.
2. Atal guztietan hizkuntzaren erabilera sexista egiten duten graduak.
3. Hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten duten graduak (hizkuntzaren erabilera sexista eta ez-sexista txandakatzen dira).
4. Atal guztietan edo batzuetan informaziorik ematen ez duten graduak.<sup>9</sup>


Eskuratutako datuek erakusten digutenez, graduen % 54,14k hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten dute; izan ere, atal batzuetan, termino inklusiboak erabiltzen dituzte, eta maila berean agertzen dira beti maskulinoa eta femeninoa; baina, atal beste batzuetan, maskulinoa generiko gisa erabiltzen da, gorabehera semantikoak eraginez.

Hizkuntzaren erabilera ez-sexista atal guztietan, graduen % 39,56tan egiten da, eta graduen % 2,20k, berriz, hizkuntzaren erabilera sexista egiten du, atal guztietan. Graduen % 1,10ek ez du informaziorik ematen.

---

<sup>9</sup> Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Zuzenbideko gradua (Bizkaia) eta Zuzenbideko Gradua (Bizkaia), Arkitekturaren Oinarrietako Gradua, Ingurumen Ingeniaritzako gradua (Bizkaia) eta Medikuntza Gradua (Bizkaia).


Datuak hurrengo grafikoan ikus daitezke:



19. grafikoa. Hizkuntzaren erabilera, graduak aurkezteko ataletan


Ostera, hizkuntzaren erabilera ez-sexista atalez atal aztertzen (Aurkezpena, Helburuak, Profila eta Gaitasunak) dugunean, joera nagusia aldatu egiten da, hizkuntzaren erabilera ez-sexista nagusitzen baita guztietan.

Aurkezpenean, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten da nagusiki; izan ere, graduen % 75,82k (69 gradu 91 graduren artetik) hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten dute; % 19,78k, (18) erabilera sexista; eta, % 3,30ek, berriz, hizkuntzaren erabilera aldakorra.




20. grafikoa. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista, graduen aurkezpenean

Graduen helburuen deskripzioan ere hizkuntzaren erabilera ez-sexista da nagusi, graduen % 70,33tan (64) agertzen baita. Haren atzetik, graduen % 15,38k (14) hizkuntzaren erabilera sexista egiten dute, eta % 12,09k (11), berriz, hizkuntzaren erabilera aldakorra. Bi kasutan (% 2,20) ez da ematen helburuei buruzko informaziorik.




21. grafikoa. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista, graduen helburuetan

Gradu bakoitzaren gaitasunen deskripzioan, graduen % 85,71k (78) hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten dute; % 8,79k, (8) hizkuntzaren erabilera sexista; % 2,20k, (2) hizkuntzaren erabilera aldakorra; eta, graduen<sup>10</sup> % 3,30ek ez dute ematen atal horri buruzko informaziorik.



22. grafikoa. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista, graduako gaitasunen deskripzioan

Gradudunaren profilari erreparatuz gero, graduen % 60,44k hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten dute. Graduen % 37,36k (34) hizkuntzaren erabilera sexista egiten dute, eta, azkenik, bi gradutan (% 2,20) ez da ematen atal horri buruzko informaziorik.



23. grafikoa. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista, gradudunaren profilean


<sup>10</sup> Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Zuzenbideko gradua (Bizkaia), Zuzenbideko Gradua (Bizkaia) eta Medikutzako Gradua (Bizkaia).



Jakintza adarrei erreparatuz gero, 22. orrialdean aipatutako 4 suposizioen arabera (hizkuntzaren erabilera aldakorra hainbat ataletan, erabilera ez-sexista atal guztietan, erabilera sexista atal guztietan eta informaziorik eza) elkartutako datuez baliatuta, honako informazio hau eskuratzen da:

Jakintza adarrak	Erabilera aldakorra	Erabilera ez-sexista	Erabilera sexista	Informaziorik eza
Artea eta Giza Zientziak	% 60	% 40	% 0	% 0
Zientziak	% 90	% 10	% 0	% 0
Osasun Zientziak	% 75	% 12,50	% 12,50	% 0
Gizarte eta Lege Zientziak	% 35,48	% 61,29	% 0	% 3,23
Ingeniaritza eta Arkitektura	% 62,50	% 34,38	% 3,13	% 0

18. taula. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista, jakintza adarren arabera



24. grafikoa. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista, jakintza adarren arabera

Aurreko taulan eta grafikoa ikus daitekeen moduan:

- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten duten graduen proportziorik handiena Gizarte eta Lege Zientzien jakintza adarrean dugu, eta ondoren Artea eta Giza Zientziak daude.
- Zientzietako jakintza adarra da hizkuntzaren erabilera ildo berari jarraitzen ez dioten gradu gehien biltzen dituen; bestela esanda, adar horretan, erabilera ez-sexista eta erabilera sexista konbinatzen dira (hizkuntzaren erabilera aldakorra).
- Erabilera sexista egiten duten graduen ehuneko handiena Osasun Zientzietan dugu; dena den, ehuneko berdina du hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten duten graduetan ere.
- Hizkuntzaren erabilera sexista egiten duen gradurik ez duten hiru jakintza adar daude: Artea eta Giza Zientziak, Zientziak, eta Gizarte eta Lege Zientziak.


Datu horiek analisiaren lehen fasean –2011ko irail-urria bitartean– jasotakoekin alderatuz gero, honako hau ikus daiteke:

- Bat datoz graduak azaltzeko testuetan hizkuntzaren erabilera aldakorrerako joera nagusiarekin, atzetik, gertu, hizkuntzaren erabilera ez-sexista dagoelarik.
- Gizarte eta Lege Zientzien jakintza adarrak eusten dio hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten duten graduen proportziorik handiena izateari.
- 2011rekin alderatuta, datu positibo bat dago; izan ere, urte hartan, Artea eta Giza Zientzien adarrean ez zegoen gradu bakar bat hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten zuenik, eta 2014. urtean, ordea, adar horretako lau gradutan egiten da hizkuntzaren erabilera ez-sexista.

#### A.5. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren analisia, genero ikuspegia nolabait txertatua duten graduetan

Atal honetan, gako hitzen (berdintasun/desberdintasun, ekitate/ez-ekitate, emakumeak, generoa, feminismoa, baterako hezkuntza, patriarkatua, androzentrismoa, emakumeen aurkako indarkeria, bazterkeria) agerpena aztertu da, atalez atal: Aurkezpena, Helburuak, Gaitasunak eta Gradudunaren profila.

2014ko otsaileko datuek erakusten digutenez, aztertutako 91 graduen artetik, % 19,78k (18) GIT eragina dute graduko gaitasunen deskripzioan, eta % 7,69k (7), berriz, graduko helburuetan.




25. grafikoa. Graduaren helburu eta/edo gaitasunetan GIT eragina duten graduen ehunekoak

Nabarmendu behar dugu, ordea, beti ez datozela bat graduetakoko helburu eta/edo gaitasunetan GIT eragina izatea eta gradua aurkezteko testuetan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea. Hain zuzen, helburu eta/edo gaitasunetan GIT eragina duten 25 graduen artetik, % 48k (12) egiten dute hizkuntzaren erabilera ez-sexista bere testuetan. Gainerakoek hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten dute.

Era berean, aurkezpenean, helburuetan, gaitasunetan eta gradudunaren profilean hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea eta edukietan (graduak helburu eta irakasgaietan) GIT eragina edukitzea beti ez datoz bat.

Modu berean, irakasgairen batean GIT eragina duten graduek ez dute beti hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten beren azalpen testuetan. Hain zuzen, irakasgaietan GIT eragina duten 40 graduen artetik, 27 gradutan (% 67,50) egiten da hizkuntzaren erabilera ez-sexista azalpen testu guztietan. Beste 11tan (% 27,50) hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten da; batean, (% 2,50) erabilera sexista egiten da, eta beste batek ez du informaziorik ematen.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, 2014ko datu horiek eta 2011ko (urte hartan GIT eragina zuten graduen % 50ek hizkuntzaren erabilera aldakorra egiten zuten; % 41,67k, hizkuntzaren erabilera ez-sexista; eta, % 8,33k, hizkuntzaren erabilera sexista) datuak alderatuz gero, hautematen da testuetan hizkuntzaren erabilera ez-sexistak gora egin duela, eta hizkuntzaren erabilera sexistak, berriz, behera.



26. grafikoa. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruzko datuen alderaketa, GIT eragina duten irakasgaitan

**B. INFORMAZIO OROKORRAREN BANAKATZEA, CAMPUS ETA IKASTEGIEN ARABERA ETA JAKINTZA ADARREN ARABERA**

**B.1. INFORMAZIO OROKORRA, CAMPUS ETA IKASTEGIEN ARABERA**

Hurrengo taulan, genero ikuspegia nolabait txertatua (GIT) duten ikastegiak zerrendatzen dira, eta horien erlazioa agertzen da, campus bakoitzaren ikastegi guztiekiko.

Campusa	Ikastegiak guztira	GIT eragina duten ikastegiak	% campus bakoitzeko ikastegi guztiekiko	Ikastegien zerrenda
Araba	7	5	% 71,43	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gasteizko Irakasleen UE</li> <li>2. Gasteizko Gizarte Langintzako UE</li> <li>3. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F</li> <li>4. Farmazia F</li> <li>5. Letren F</li> </ol>
Bizkaia	14	10	% 71,43	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Leioako Erizaintzako UE</li> <li>2. Bilboko Irakasleen UE</li> <li>3. Lan Harremanen UE</li> <li>4. Nautika eta Itsasontzi-makineriako GET</li> <li>5. Arte Ederren F</li> <li>6. Zientzia eta Teknologia F</li> <li>7. Ekonomia eta Enpresa Zientzien F</li> <li>8. Gizarte eta Komunikazio Zientzien F</li> <li>9. Zuzenbide F</li> <li>10. Medikuntza eta Odontologia F</li> </ol>
Gipuzkoa	11	7	% 63,64	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Donostiako Erizaintzako UE</li> <li>2. Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE</li> <li>3. Donostiako Irakasleen UE</li> <li>4. Kimika Zientzien F.</li> <li>5. Zuzenbide F</li> <li>6. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F</li> <li>7. Psikologia F</li> </ol>
<b>GUZTIRA</b>	<b>32</b>	<b>18</b>	<b>% 56,25</b>	

19. taula. Ikuspegi orokorra, campusen eta ikastegiaren arabera

## B.2. JAKINTZA ADARREN ARABERAKO INFORMAZIOA

Atal honetan, jakintza adar bakoitzean, genero ikuspegia txertatzearen eragina zenbat eta zer gradu duten ikus dezakegu.

Jakintza adarra	Graduak guztira	GIT duten graduak	Jakintza adarraren arabera % gradu osoekiko	Graduen zerrenda
Gizarte eta Lege Zientziak	31	26	% 83,87	<p>Araba</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Z.</li> <li>Haur Hezkuntza</li> <li>Lehen Hezkuntza</li> <li>Geografia eta Lurralde Antolakuntza</li> <li>Gizarte Langintza</li> </ol> <p>Bizkaia</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Enp. Zuz. eta Adm. eta Zuzenbidea</li> <li>Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza</li> <li>Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa</li> <li>Ikus-entzunezko Komunikazioa</li> <li>Zuzenbidea</li> <li>Ekonomia</li> <li>Haur Hezkuntza</li> <li>Lehen Hezkuntza</li> <li>Gizarte Hezkuntza</li> <li>Zerga Sistema</li> <li>Kazetaritza</li> <li>Publizitatea eta H. Publikoak</li> <li>Lan Harremanak</li> <li>Soziologia</li> </ol> <p>Gipuzkoa</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Gizarte antropologia</li> <li>Kriminologia</li> <li>Zuzenbidea</li> <li>Haur Hezkuntza</li> <li>Lehen Hezkuntza</li> <li>Gizarte Hezkuntza</li> <li>Pedagogia</li> </ol>
